

HAIZEAK DARAMANA

Airea sarri ez da izaten gure gorputza laztantzen duen fereka leun bat. Askotan loditu egiten da, gure ibilkera eta baita ahoskera ere motelduz. Haizeak lagunduta bortxaz kolpatzen gaitu, azalean markak utzi eta soinean hogeinaka kilo jartzen dizkigu. Bortxakeria hori ere selektiboa da. Lautadan pilatutako fardeletatik ihes egiten du lastoak, haizeak higatu ahala forma galduz; eta bitartean, mendi tontorretan zaindari dauden haize-errotek barre egiten diote bistaratzen duten kaosari, palak bueltaka hasiko direnaren seinale, eta berriro ere, errotak izango dira gaitz horren onuradun bakarrak.

Eta horrela, airearen bortxaren aurka basoetan zuhaitzek, pagoek eta haritzek, goroldioz jositako berokia janzten dute. *Otsoen kontra, sikatearen kontra*. Azken garaiotan, ordea, mendietako lurra izan da goroldioz estali dena. Ihes egin dute haren babesari behar zuten gorpu biluzi horiek, eta berokiek ez daukate zer besarkatu. Beste zuhaitz batzuk etorri dira atzerritik, jatorrizkoen hutsunea betetzearren. Zehazki, lurra lehortu eta zerua arrakalatzen dutenei eukalipto deritze. Horrela, gure mendietan zehar egurrezko harresi hilkorra osatzen duten basoak sortu dira, haize-errotak bezain sendoak eta arrotzak diren zuhaitzez osatuak.

Haizeak dakarkigu tragedia horren oihartzuna hiri handietara. Eta burura dator kit ea mezu hori zabaltzeak ez ote duen indarkeriara bultzatzen airea; hau da, haizea ez ote den sakonki mindu duten bihotz hauskorreko airea. Zenbat zorigaitzen lekuko da? Isilarazten diren zenbat hitz daramatza barnean? Halatan ere, berak gure etxea defendatzen du, *besorik gabe, sorbaldarik gabe, bularrik gabe*, kemenez.

Txoriek basoetatik alde egin dute, eta isilik dago basoa. Kanturik ez da ageri eta laister, oihartzun gisara, urakana espero da.